

Europar finantza sistemako eskakizun txikienetakoa da, bere arrisku-profil egokiaren, kaudimenaren eta ahalmen-finantzarioaren erakusle

Kutxabankek 2024rako MREL eskakizunak betetzen ditu

- **EBB-k Kutxabank Taldeari % 17,28ko MREL eskakizuna eman dio jakitera, sistemako baxuenetakoa**
- **Kalitate goreneko kaudimena du Espainiako finantza-erakundeen artean, eta MREL eskakizunak bete ahal izateko jaulkipenak egina ditu**

2022ko urtarrilaren 27an. Kutxabankek Espainiako eta Europako finantza-sistema osoan berezko fondo eta pasibo onargarrien eskakizun (**MREL**) maila txikienetakoa du, JUR-ek (Erresoluzio Batzorde Bakarrak) eginiko azterketaren arabera.

Kutxabankek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, berezko fondo eta pasibo onargarri kontsolidatuen % 17,28ko maila lortu beharko du arriskuaren esposizio osoaren zenbatekoarekiko (TREA), eta % 5,25eko esposizioa palankatze ratioarekiko (LRE), aurreko eskakizunarekin alderatuz gero egonkor mantenduta. Gainera, Erakundeak % 2,5ean mantendu beharko du kapitala artatzeko koltxoia, arriskuaren arabera neurtutako aktiboen arabera.

Gaur egun, Kutxabankek **dagoeneko betetzen** du 2024. urterako ezarritako eskakizuna, bai bere kaudimen onarengatik -sistema osoko garaiena da ratioa- nola eginak dituelako MREL eskakizunak bete ahal izateko jaulkipenak.

Izan ere, 2019ko irailean 500 milioi euroko Non Preferred bono Seniorren jaulkipena egin zuen Kutxabank Taldeak, eta 2021eko urrian formatu berdeko Non Preferred bono Seniorren beste jaulkipen bat plazaratu zuen, hau ere 500 milioi eurokoa. Jaulkipen biek oso harrera ona izan zuten nazioarteko eta Espainiako inbertsoreen artean, eta igorri zirenetik bilakaera ona izan dute Espainiako gainerako finantza-erakundeek jaulkitakoekin alderatuta.

JUR erakundearen azterketak ikuspuntu positiboa ematen du Kutxabanken erresoluzio estrategiei buruz, eta konfiantza agertzen du bere kaudimenean eta ahalmen finantzarioan.

MUR-ek babestutako erresoluzio araudiak bideraezintasuna sortuz gero kudeaketa arina egiteko plan zehatzak eskatzen dizkie finantza-erakundeei, bai eta sor litezkeen galerei

eusteko gai diren tresnak sortzea ere, berezko edo kanpoko baliabideekin. Eskakizun hau subordinatutako zorrarekin edo senior-zorrarekin estaldu behar da. Aipatzekoa da, gainera, Kutxabank Taldearen kapital eskakizuna ohiko metodoa erabiliz kalkulatu dela, eta sistema hau kotizatutako erakunde nagusiek erabili duten IRB araudia baino zorrotzagoa da. Beraz, euskal finantza Taldeari jakitera emandako eskakizun-maila estuagoa da gainerako erakundeekin alderatuta.
